ARANTZAko UDALA
IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
✆ 948 634 005
948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

# 2015EKO EKAINAREN 3KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.
**Batzarra:** Bilera berezia.
**Deialdia:** Lehenengoa.
**Eguna:** 2014.06.03.
**Ordua:** Goizeko 8:30etan.
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

**Bertaratuak:**
Alkatea: Ander Almandotz Indakoetxea jn.
Zinegotziak:
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

**Bertaratu ez direnak:**
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Koldobike Gorostiza Uriguen and.

**Idazkaria:**
M. Jose Larraioz Ariztegi and.

**Aztergaiak:**
1.-Baztan-Bidasoa eskualdean turismoa garatzeko lankidetza hitzarmenaren onespena.
2.-Juan M.Gonzalez Burguete jauna: oihan probetxamendu eskaera.

**1.-BAZTAN-BIDASOA ESKUALDEAN TURISMOA GARATZEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA.**

Ikusirik Cederna-Garalur elkartea igorritako lankidetza hitzarmena, eskualdean turismoa garatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako hitzarmena onartzea.

2) Akordio hau Cederna-Garalur elkarteari jakinaraztea.

**2.-JUAN M.GONZALEZ BURGUETE JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Juan M. Gonzalez Burguete jaunak, Mugarai alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (entresaka, 2. poligonoko 320. eta 321. lur zatietan).

Kontuan hartuz bi lur zatia horiek irazlaein hitzarmena sinatu ondoren hartutako lurrak direla.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan M. Gonzalez Burguete jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

Bertzerik gabe, goizeko 8:45ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Ander Almandoz Indacoechea jn.